

# www.noaia.com Noaia !!



Otsailaren bukaeran,  
hondakinen inguruko  
herri kontsulta



50 urtez

Larrañaga Plásticos gidatzen

# "EL ALMACEN DE AGINAGA"

GIPUZKOAKO LEHEN  
ALTZARI FABRIKA

ALTZARIAK, SOFAK, KOLTXOIAK...

**FABRIKAKO PREZIOAK!!!**

*Mahaiak, aulkiak, logelak, sofa-ohak,  
literak, sarrerako altzariak,  
neurri eta kolore guztietako armairuak...*

ORDUTEGIA:

Astelehenetik Larunbatera (ostegunetan ja)

10:00-13:00 eta 16:30-19:30

IGANDEA: 11:00-14:00

Errosti industrialdea (Aginaga sagardotegiaren ondoan)  
AGINAGA 943 36 93 59

# OTEGI

Sagardotegia



**30ean irekitzen dugu!**

·Urte guztian irekita

·Igande gauetan eta astelehenetan itxita

·Larunbat eta igande eguerditan enkarguz

**Solla enea Baserria**  
Zabaleta auzoa · Lasarte-Oria  
943 365 029



**FRUTARBOLAK LANDATZEKO SASOIA!**

ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
**BIZIRIK**



Frutarbolak, marrubiak, sustratu organikoak, larrosak...



## Albiste iruditan !!

# San Sebastian eguneko danbor hotsak Udarregin

Urtarrilaren 20an gauerdian leher-tu zen jai giroa Donostian, Azpeitian, Tafallan, Lekunberrin... Goiztiarragoak izan ohi dira Udarregi ikastolan. Irakasle eta gurasoen alboan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek asteartean, San Sebastian egunaren bezperan ospatu zuten danborrada; jantzi zuriak soinean, zapia lepoan eta sukaldari kapela buruan. Ohikoa baino aste laburragoa izan dute Udarregi ikastolakoek, San Sebastian eguna jai baitzuten. Ospakizunak etengabe datoz urte garai honetan, bata bestearen atzetik; San Sebastian eguna igarota, hurrengoak, otsailaren 4an Santa Ageda bezpera eta otsailaren 12an Inauteriak.



IRAKASLE ETA GURASOEN AURREAN ARITU ZIREN IKASLEAK DANBORRADAN.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

- KULTURA AHOLKU BATZORDEAK 2 URTE **5. OR.**
- KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**
- LARRAÑAGA PLASTICOS, MENDE ERDIZ **8. OR.**
- HERRI KONTSULTA, BEGIBISTAN **10. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**JOSETXO IKATZETA**

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

Papera jartzea eta  
Pinturak orokorrean

**FERNANDO**  
**PINTORAK**

943 366 019  
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
piater konbinatuak

**TABERNA**



IDOIA TORREGARAI

## Beherapenak

BEHERAPENAK/REBAJAS/SALES/SOLDES/BEHERAPENAK/REBAJAS/SALES/SOLDES/BEHERA

**B**eherapenak aprobetxatzeko asmoz aurreko astean Urbilera joan nintzen. Aste tartean joatea pentsatu nuen, asteburuko jendetza ez harrapatzeko asmoarekin. “Zenbat jende egongo da ba astearte buruzuri batean?”, pentsatu nuen, inuxenteki. ZENBAT? Ba zu bezela pentsatu duten beste MILA pertsona! Ai, ama, zer zen hura! San Sebastian egunean Konstituzio plazan baino jende gehiago geunden han! Beldur pixka bat eman zidan zurrunbilo horretan sartzea, baina belaun gainean nuen galtzetako zuloak pare berria behar nuela esaten zidan, beraz, arnasa hartu eta hortxe sartu nintzen.

Eta galdetzen dut: zer gertatzen zaigu beherapenetan pertsonoi? Horiek dira horiek bultzadizo, hankazapaltze eta burrukak! Behin bertara iritsita, komeriak izan nituen ere nire gustuko eta neurriko zerbait topatzeko: erropa guztia belar-metaren antzeko piloan botata zegoen, jendeak bat hartu bestea utzi edo lurrera bota, presaka, bizitzan egin behar zuten azken gauza balitz bezala. Eta behin zerbait ikusi nuenean gustokoa, har-

tzer joan eta... tapa! galtzen beste aldean zakur aurpegi zuen emakume bat tiraka, Sakanako sokatira taldekoak baino indar gehiagorekin. Amore eman behar izan nuen, ez bainuen zer eginik Goliat haren aurka!

Azkenean, nahiko lanarekin baina topatu nituen gustuko galtza batzuk eta aldageleretara abiatu nintzen. Benetan, animo guztiak lurrera erori zitzaizkidan bertara sartzeko zegoen ilara ikusi nuenean: INEMeko kola ematen zuen! Gainera, ez pentsa bertan zeudenak erropa bakarrarekin zijuaztenik, ez, “fondo armario” guztia berritzeko asmoa zuten! Buffff! Ordu erdi beranduago lortu nuen poxpolo kajan sartzea. Nahikoa trauma izaten da bertan egoten den argi zuri horrekin zure burua kulerotan ikustea, eta hori gutxi ez eta andre bat aldagelaz konfunditu eta kortina osoa ireki zidan, mundu guztiaren aurrean. Eta ni hor, hanka baten gainean saltoka, galtzak sartu nahian. Krixton kuadroa.

Azkenean galtzak erostea erabaki nuen eta ordaintzeko ilaran beste ordu erdi egin ondoren, lortu nuen eromen hartatik ateratzea. Baina merezi al zuen?

BEHERAPENAK/REBAJAS/SALES/SOLDES/BEHERAPENAK/REBAJAS/SALES/SOLDES/BEHERA

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Pifias - Ugaitz Agirre - Unai Agirre - Idola Torregarai

## Erraustegiaren aurkako helegite gehiago aurkeztu dira

**G**ipuzkako Erraustearen Aurkako Plataformen Koordinakundeak beste 366 banakoen helegite aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailan. Pasa den abenduaren 28an aurkeztutako 1.709ekin batera, 2.075eko kopurua osatuz. Hauei gainera, Ekologistak Martxan, Donostia Bizirik eta Lasarte-Oria Bizirik elkarten helegiteak gehitu behar dira.

“Helegite hauetan salatzen da, besteak beste, erraustegi honetatik inguruko herrietara (Zubieta, Usurbil eta Lasarte-

Oria) ez dagoela bi kilometroko tartetik, mota honetako jardueretarako legeak agintzen duena, ez dela aintzat hartu Europako Parlamentuak eta Europako Kontseiluak hondakinak kudeatzeko hierarkiari buruz 2008ko azaroaren 19an aurkeztutako zuzentaraua eta ez dela azterketa konparatibo bat egin kokapen posibleen artean”, prentsa ohar bidez Gipuzkoako Erraustearen aurkako Plataformen Koordinakundeak adituzera eman duenez.

Honen aurrean, Usurbilgo atez atekoa



ERRAUSTEAREN AURKAKO PLATAFORMAKOAK, HELEGITE BERRIAK ESKUETAN.

jarri du hondakinaren arazoa kudeatzeko eredu egokitzat.

Solariuma L'ORÉAL  
**Iñoli Lizarralde**  
 • Ilkapaindegia • Estetika Zentroa  
 Zubiaurrenea, 5-B ☎ 943 361 971

Kale nagusia, 10  
 Telf: 943 37 33 48  
 943 37 09 13  
 Olandegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ANTXETA**  
 taberna-jatetxea  
 ogitartekoak  
 eguneroko menua  
 plater konbinatuak  
**EGUZKITZA, 4 · 943 370 344**

# Produktu ekologikoen inguruan sortutako taldea elkarte bilakatuko da

**P**roduktu ekologikoak sustatzeko Usurbilen sortu den taldeak, elkarte izaera hartuko du datorren otsailaren 1etik aurrera. Gai kimikorik gabeko barazki otarrak banatzen hastearekin batera, gutxi barru aipatu bilguneak emango duen beste pauso garrantzitsua izango da. Horretarako, bilkura deitu dute, aipatu moduan, otsaileko lehen egunerako, arratsaldeko 18:00etan Artzabalen. Taldetik herritar zein alor desberdinetako eragilei bilkuran parte hartzeko gonbita luzatzen zaie.

Datorren hilabete hasieran talde izateari utzi eta elkarte izaera hartuko du, produktu ekologikoak ardatz hartuta herrian sortu den bilguneak. Elkartearen eraketa otsailaren 1erako deitu duten bilera irekian burutuko da. Bilguneari gainera, izena ere jarriko zaio.

## BAZKIDE EGITEKO AUKERA

“Oraingoz, bazkide laguntzaile egiten direnek ez dute kuotarik ordaindu behar izango”

Eguberrietan, herriko saltoki eta tabernatan egon diren orrialdeetan herritarrek produktu ekologikoen taldeari jartzea gogoko izango zuten izena proposatzeko aukera izan dute. Orain, taldeak jasotako iradokizun guztien artean, datorren bilkura irekian izen bat hautatuko dute.

## Elkartean, bazkide laguntzaile

Bilguneari izaera berria eman eta izena jartzeaz gain, bazkide laguntzaile izateko aukera eskaini nahi dute. Oraingoz, kuotarik gabe, doakoa izango litzateke. Horregatik, taldetik



AZKEN HILABETEOTAN HAINBAT BILERA EGIN DITUZTE. DAGOENOKO MARTXAN DA KONTSUMITZAILEEN TALDEA. LASTER, ELKARTE BILAKATUKO DA.

datorren hilabeteko bilkuran parte hartzeko gonbita luzatzen diete herritarrei, baita alor desberdinetako eragileei ere.

## Otsailaren 1ean Artzabalen

Bazkide laguntzaile izateko interesa izan dezaketenei edota abian den egitasmoa babestu edo bultzatu nahi duen orori.

Hitzordua, otsailaren 1ean, astelehena, arratsaldeko 18:00etan Artzabalen.

## Produktu ekologikoen otarrak, eskuragarri

Estreinakoz barazki ekologikoez hornituriko otar bana jaso zuten alde zurretik eskatu eta izena emana zuten zortzi herritarrek, igaro den urtarrilaren 11n. Beste zortzi itxarote zerrendan daude, baina izen emateak zabalik jarraitzen du. Eskaera egin nahi duenak, Alkartasuna nekazal kooperatibara jo dezake, edota telefono zenbaki honetara deitu: 660 061 251. Beste aukera, honako helbidera e-mail bat idaztea litzateke:

pedroalberdi@hotmail.com

## Bi urte bete ditu Kultura Aholku Batzordeak

**E**lkarre ugarri bildu ziren urtarrilaren 13an egin zen Kultura Aholku Batzordean. 20 ordezkarik herriko kultur gintzan berebiziko garrantzia duten gaiak landu zituzten: urteko kultur agenda, dirulaguntza deialdia, taldeen arteko harremana...

Dagoeneko bi urte bete ditu batzorde honek. Helburu nagusiak dira: herriko kultura eragileen komunikazioa eta herriko kultur gintzaren koordinazio zein partaidetza bideak ahalbideratzea.

Aholku Batzordearen hurrengo bilera martxoaren 3an egingo da.



KULTUR ERAGILEEN BILGUNE BIHURTU DA KULTURA A HOLKU BATZORDEA.

## KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Gurpil madarikatua



Gogoetetan... Abendu hasiera. Ai ene, hori da hori abiadan pasa dena aurtengo urtea! Batek esan zuen korrika eta presaka bizi garela eta ez du arrazoi faltarik! Aiba, lau eguneko zubia dut aurrean, ezin gera ninteko aprobeixatu gabe. Ea, nora joan gintezke? Agian nekazalturismo bat hartu eta ospa; beharra dugu jada deskonektatzeko eta herritik aldegitako. Garestia aterako ote? Eta hala bada ere, ez al gara lanean aritu urte osoa? Ze demontre, hor konpon krisiak eta krisiaren ondorengoak. Ondo da, Internet bidez egingo dut erreserba.

“Zer moduz ibili zarete?”. “Ondo baina orain buelta, berriro errutina madarikatu honetara”.

Ai ene, bihar gabon gaua eta ni erosketak egin gabe! Ez daukat ezer. Korrika batean erosketak egitera noa. Eta haurrak?... “Kaixo, edukiko al zenizkidake haurrak ordu pare batez?... Eskerrik asko”. Autoa hartu eta munduko produktu guztiak bukatzen ari direlako jendez lepo josita dauden merkatalgune horietako batera gerturatu naiz. “Baina

bueno, jendeak ez al du beste zereginik? Hau tope dago”!! Bueno, gaizki aparkatua utziko dut eta aizu, Udaltzaingoa etortzen bada ze demontre, ulertu dezala data bereziak direla! ...”.

Karroa hartuko dut. Tirri tarra noa pasilloetan barrena. Jendea saihesten dudan bitartean eskua luzatu eta txokolatezko turroia, turroi gogorra, turroi biguna, haurrentzat turroia, turroi berezia, tragatu ezin diren polboroiak, bola bat eginda gelditzen diren mazapanak, xanpaina, ardoa, freskagarriak haurrentzat, urdaiazpikoa, langostinoak, ganbak, gulak, kardoak, arrain zopa egiteko arraina, arkumea, sagarrak konpota egiteko... Orain opariak; halakoa honentzat, bestea harentzat baina marka jakin honetakoa (ea bestela traumaren bat sortuko ote zaion), ondokoarentzat ere zerbait ezer gabe gera ez dadin... Azkenean iritsi da nire txanda kaxan. Ordaindu eta ospa.

Autoa hartu eta banoa bueltan herrira. Eromena izan da baina tira, eskerrak, jada dena duk Gabonak pasatzeko.

Urte berri on!!

## TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

## Aldaketaren beharra



Urtarrilak 18 hilberri pasa berri, duela aste-beteko izotz eta elurrak ibaian behera doaz. Urte batzuk atzera begira jarrita, jendea Euskadi Tropikal baten beldur zen, eguraldi epe-lak eta negu gozoak zirela eta.

Gozotasunak garrazten hasi direla dirudi, egun batean hego haizea, handik bi egunetara zerope-tik, hilabete batean lehortea, eta hurrengoan uholdeak. Eta hala ere eromen honetan guk gizakiok, zerikusirik ez dugulakoan hainbat eta hainbat morroi. Beste batzuk ordea, orain arteko sistema kutsakor eta suntsitzaileak eragin zuzena duela itsu-itsuan sinesten dugu eta gure esku dagoen guztiak egiteko prest azaltzen gara.

Honen adierazgarri Udalak egindako atez-ateko zabor bilketari buruzko inkesta dugu. Ia %70ak ezarritako sistema berriaren aldeko azaldu da. Behar bada sistema hau ezarri ez bazen, ehuneko honen zati handi batek ez zuen inongo aldaketarik martxan jarriko bere kabuz. Beraz, sistema honen arrakastarik handiena, gure kontzientziengan izan duen eragina izan da. Aldaketaren beharra barnerararazi digu. Beraz, lagunok hau hasi besterik ez da egin. Sistema hobetzeko guztion ahaleginak bilduz goazen aurrera, gure onerako da eta.

## ATXEGALDE

MAJESUS URBIETA

## Danbor soinuak

Urte berri on deni. Berriz ere hemen Ugarra urte bete gehiagoz baina pozik oraingoan ere. Urtea ondo hasi genuen, Errege Eguna etortzeko irrikan etxeko txikiekin gozatzeko. San Estebanetik behera sumatu zituztenean ez zen giro biloben artean. Denak dar-dar batean zeuden. Gero eta gertuago ikusten ziren eta ez zekiten negarra edo barre egin.

Olentzero ere izan berria zen baina, Errege Eguna ere berezia izaten da. Hautzarotik datorren tradizioa da eta ilusio handia jartzen diogu egun horri. Azken finean, umeak opariekin izaten duten poza ikustea ederra izaten da.

Orain ordea Donostiako eguna izan dugu eta ez da danbor soinurik falta izan. Ikastolan ere aukera izan zuten bezperatik aritzeko eta gustura aritu ziren.

Bada ordea auzoan beste gune bat Donostia eguna ospatzen dutena eta ederki ospatu ere. Maspildegina ere urtero antolatzen da afaria eta ondoren izaten da danborra jotzen duenik ere. Umora ona nagusi eta ordu alai batzuk pasatzeko aukera bikaina izaten dugu elkartzeko garen auzokideok eta Donostiatik etortzen diren zenbait lagunek. Jarraitu horrela urte askoan!



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

## Aginagako mendi lasterketa



**D**agoeneko 2010. urte honi ere ekin diogu. Gabonak atzean utzi ditugu eta dagoeneko San Sebastianetako danbor soinuak ere entzuteko aukera izan dugu!! Urtea aurrerantz doan honetan, Aginagako jai batzordea ere jo eta su lanean hasteko

asmoz dago.

Iaz antolatu genuen lehenengo aldiz mendi lasterketa Aginagan. Honetarako, jende askoren laguntza izan genuen eta onartu behar, jende kopuru hau mugitu ezean, ezinezkoa izango zela lasterketa hau gauzatzea. Izan ere, ordu bete edo ordu eta erdi iraun zuen frogaren honek, baina aurretik hilabetetako lana zegoen ezkutuan. Hala nola, ibilbide erakargarri bat hautatzea, ibilbide horri begirada bat eman eta txukun dagoela ziurtatzea, honela ezean, txukuntzea, ibilbidea markatzea...

Lan handia eskatzen badu ere, aurten dagoeneko hasiak gara II. Mendi Lasterketaz hitz egiten. Iazko lasterketako balantzea oso positiboa izan zela esan beharra dago, parte hartzaile asko izan baikenituen Euskal Herriko txoko guztietatik eta aurtengoan ere horrela izango denaren esperantzan gaude!!!



Hau dela eta, urtarrilaren 21ean osteguna, Aginagako elkartearen elkartuko gara antolaketa lanei ekiteko asmoz. Besterik gabe, jendeari esan, animatzeko bilera honetara, guztion artean errazagoa izango baita guztia aurrera eramatea. Eta II. Mendi Lasterketan parte hartzeko asmoz daudenei gogor ekin diezaiotela entrenamenduei, irabaztea ez da erraza izango eta.

Besterik gabe, hurrengo bat arte!

KALEBERRI

IRATI PORTU

## Inauteri festa



**U**rte hasi dugu eta banituen zenbait gai idazteko: pasa den urteko errepasoa, aurrera begira ditugun erronkak, beti balio duen gaia eguraldia... baina, beste gai batetaz hitz egingo dizuet, Inauteriak.

Hiru aste falta dira Inauteri larunbata iristeko. Badira zenbait herri Nafarroa aldean dagoeneko Inautetan dabilzanak. Guk berriz, nahiz eta tradizio handiko festa ez izan otsailak 13an izango dugu zita. Inauteria nor berak egiten duen festa da, norberak ingurukoekin lotsak alde batera utzi, imajinario pixka bat jarri eta ondo paseaz egiten dituen festak.

Pasa den urtean, herritar asko animatu zen mozorro-tu eta kalera ateratzera eta aurten ere horretara animatu nahiko nituzke gazte, ume zein helduak. Beraz, hasi trasteak eta oihalak ateratzen eta aurtengo mozorroa prestatzen.

Bestalde, oraindik aurtengo gaia zehaztu gabe dago eta norbaitek ideia bat badu buruan bueltaka, Noaua!ko helbidera (elkartea@noaua.com) bidal dezala posta elektronikoa bat.

Honela egun gutxi barru gaia ezagutuko dugu nahi duenak ideiak izateko.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Gure esku

**G**abonetako jai-egunetatik bueltan urte berriak zer ekarriko digun pentsatzeko joera izan ohi dugu. Urte berriak ekarriko ditu ekarri, halabeharrez, elurteak, lehorteak, tximistak, istripuak, heriotzak, jaiotzak eta bestelako sorpresak. Horien kontra ezer gutxi dago egite-rik.

Baina urte berria neurri handian guk ere molda dezakegu, gure esku ere badago urtea kolore biziz edo ilunez janztea...

Gure esku dago 2010ean erraustegiari hauspoa ematea edo hondakinen etxeko kudeaketa zibilizatuagoarekin beharrezko ez dela erakustea.

Gure esku Zubietako kaleak autoen kez eta zarataz betetzen jarraitzea edo Lasarterainoko bide gorri eta espalo berria gehiago erabiliz giro osasuntsuagoa lortzea.

Zubietarron esku dago Kaxkaperi kultur bizitza handiagoa edo txikiagoa ematea, musika eta zinemas kutsatzea edo hautsez betetzen uztea.

Gurasoon esku ere badago neurri batean 2010ean eskola txikia indartzea edo Jaurlaritzakoek gainbeheran eraman dezaten uztea. Hilaren 29an dugu hurrengo hitzordua: Donostiako Udal Plenoan aztertuko dituzte eskola handitzeko gure proposamenak eta ea gu hara bertaratuz Donostiako alkatea seduzitzen dugun behingoz zubietarron alde egin dezan.

Ea urte zenbakiz borobila izatez ere borobiltzen dugun.



# Larrañaga Plásticos enpresak 50 urte bete ditu

**J**ostailu bat ekoizten hasi ziren Lasarte-Orian. Orduetik, 1959. Urteaz geroztik, produktu eskaintza indartu, lantegia bera bitan handitu, eta langile kopuruak ere gorantz egin du. Bete-bete harrapatu gaituen krisialdi ekonomikoak sorrera urtetik ezagunak zaizkio Usurbilgo enpresa honi. Eta bizirik dirau, 50 urteren ostean. Jose Miguel Larrañaga usurbildarrak martxan jarritako Larrañaga Plásticos enpresak mende erdia bete berri du. Beste 50 urte betetzeko moduan ikusten du, eta hala nahi luke sortzaileak berak.

**NOAUA! Zure enpresa irekitzeko asmoa nondik dator?**

**Jose Miguel Larrañaga.** Garai hartan, plastikoaren sektoreko enpresa batean lanean nenbilen, nahiko goian. Piezen aurrekontu guztiak neronek egiten nituen. Nagusiak salneurria jartzen zuen. Ikusten nuen kostuen aldetik, izugarrizko alde zegoela. Enpresa hartan ez zegoen etorkizun handirik. Bi bazkideak ez ziren ondo moldatzen, beti errietan ari ziren. Han alferrik nengoela ikusten nuen. Orduan erabaki nuen neure kontutik jartzea. Hasiera batean, Lasarten alokairuan lokal bat hartu nuen eta han hasi nintzen. Bertan pixka bat indartu ginenean, Usurbila etortzea erabaki genuen. Berrogei urte daramatzagu hemen.

**N. Lehenengoetariko lantegia izango zen Usurbilen?**

**J.M.L.** Bai. Udalak hemen pentsatu zuen industria gunea egitea. Jakin nuenerako, eraikitzeo lur mutur hau bakarrik falta zen. Eva eta Valverde enpresak behintzat hor zeuden. Mutur hau erosi nuen nik, ez zen eta besterik geratzen. Hirurok lehenengoetakoak izango ginen.

**N. Sektore honen aldeko apustua egiteaz, ziur zinen hasieratik?**

**J.M.L.** Aurretik lan egin nuen enpresatik sektorea ezagutzen nuen.



JOSE MIGUEL LARRAÑAGAK MENDE ERDIA ESKAINI DIO LANTEGIARI. INDUSTRIARIK USURBILEN IZAN DUEN GARAPENAREN LEKUKO APARTA DA.

Enpresa hartan genituen bezero garrantzitsuenetakoek ezagutzen zidaten eta gaur egun nirekin jarraitzen dute.

## TOKI APROPOSA LANERAKO

“Oso leku onean dago  
Usurbil. Kokagune ona du,  
Donostiatik 10 kilometrora”

**N. Orduetik, Usurbilen industriak izan duen garapenaren lekukoetako bat izan zara.**

**J. M. L.** Oso leku onean dago udallerria. Kokagune ona du, Donostiatik hamar kilometrora. Errepidea ez da oso ona, baina garai hartarako zegoen onenetakoa zen. Usurbil garai hartan oso atzean geratu zen. Lehorteak zirela edota beste arrazoi batzuegatik, argi bonbillak justu ikusten ziren Usurbilen, ez zegoen behar beste argindarririk. Ezin zen industriarik jarri eta horregatik hona industriarik ez zen etortzen. Iberduero sartu zenean, leku ona zen, oso egokia industria jartzeko. Orduan, denok hona etorri ginen. Giltzarria izan zen Iberduero sartzea.

**N. Krisialdi egoera batean gaude egun. Baina garai zailak bizitzea egokitu izan zaizue lehendik ere.**

**J. M. L.** Garai haiek ere gaizki bizi izan genituen, baina orduan txikiagoak ginen eta errazago aurre egiten genien, langile gutxiagorekin. Egunditugun langile erdiak ez genituen orduan. Eta argi denez, zenbat eta gastu gutxiago izan, orduan eta errazago moldatzen zara krisi egoera batera. Lehenbizikoa, martxan jarri genuen lehen urtean izan zen. Francoren gobernuak “Garapen Plana” delakoa abian jarri zuen eta horrek dena aldatu zuen. Denak ikaratu ziren. Orain bezala, bankuko maileguak kendu zituzten. Garai hartan sei bat langile izango ginen, eta hura pasa genuen pixkanaka. 70ean etorri zen bestea, petrolioari lotutako krisialdia. Horrek gogor jo zigun. Hemengo material guztiak petroliotik datozenek, erosteko salneurria asko igo zen. Lan handiak izan genituen, baina hura ere pixkanaka gaingitu genuen.

## Enpresa gaur egun

**IREKIERA URTEA:** 1959.

**LANGILE KOPURUA:** 45.

**EKOIZPEN SEKTorea:** piezak, plastikoa.

**LANTEGIAREN EBOLUZIOA:**

1969an, zabaldu lehen pabilioia.

1981ean, bigarrena.

2008an, hirugarrena.



# Krisi garaia heltzean, pasa arte eutsi behar..

**NOAUA! Oraingo krisialdia nola ikusten duzu?**

J. M. L. Jende gehiago dago lanik gabe, hori da txarrena. Gure bezero batzuk beste urteetan egiten zuten lanaren %30a ari dira egiten gaur egun. Eraikuntza motorea izan da. Etxe berria erosita, dena berria behar da; etxeko tresnak... Gure pieza guztiak etxera doaz. Hori guztia gelditu denez... Halere, krisi garaian erremediorik ez dago, aurretik ikusi behar da. Mozkinak pabilioi eta makinetan inbertitu behar dira. Etxean bertan inbertitu behar dira mozkinak. Estura eta berrinbertsioa dira giltzarriak. Eta krisi garaia heltzen denean, pasa arte eustea.

**N. Zenbat langile usurbildar aritu ote dira lanean zuen enpresan?**

J. M. L. Usurbildar eta lasartear asko. Gainera, lantegia ireki dutenen artean, usurbildar bakarrenetakoa izango naiz.

**N. 50 urteak ospatu al dituzue?**

J. M. L. Oroigarri batzuk egin genituen iaz. Eta Saizarren elkarrekin bazkaldu genuen.

**N. Eguneroko jardun betean egon ez arren, oraindik enpresan jarraitzen duzu?**

J. M. L. Egunero etortzen naiz. Donostian bizi naiz baina Kontxan paseatu baino nahiago izaten dut hona etorri.

**N. Etorkizunari begira. Nola ikusten duzu zerorrek martxan jarritako enpresa?**

J. M. L. Adituek diotenez, petrolioia beste 50 bat urterako egongo omen da. Ez naiz biziko hori ikusteko, baina nahi nuke enpresak ehun urte betetzea. Enpresa honek badu etorkizunik. Bestalde, pieza txikiak egiten hasi gara, teknika aldetik zailagoak. Gure defentsa hor izango da, pieza handiak ez egitean.



HASI ZENETIK HONA, BITAN ZABALDU DA LANTEGIAREN HEDADURA.

**N. Mende erdia pasa ostean, atzera eginda zerbait aldatuko al zenuke?**

J. M. L. Pertsonalki, besteentzat lan egitetik jabe izatera alde handia dago noski. Gau asko lorik egin gabe pasatzen genituen, nahiz badiren urteak lasaitu ginela. Hilabete bukaera aile-

gatu eta nahikoa irabazirik ez ordaintzeko, eta kezka handiak izaten genituen. Besteen kontura lan egiten denean, lanetik irten eta dena ahazten da. Kasu honetan, jabea norbera izanda, ezin ahaztu. Baina alde ona badu, egindako guztia hor dago.

## “Esku tresnen kirtenak egin izan ditugu”

**NOAUA! Ekoizpena, eta ekoizteko modua, denbora gutxian izugarri aldatu dira. Nondik hasi zineten zuek?**

J. M. L. Ekoitzi genuen lehenbiziko pieza jostailu bat izan zen, oraindik zabalik jarraitzen duen lantegi batentzat. Txinako jostailu bat zen, zarauztar batek Frankfurteko ferian ezagutu zuena. Makila batekin airean zirkoan erabili izan duten kono bat zen. Gu orduantxe makinak jartzen hasi berriak ginen, eta pieza hori enkargatu ziguten. Horren inguruan bada bitxikeria bat. Segituan hasi ginen piezak ateratzen. Langilea furgoneta betea Lasartetik ateratzera zihoala, Txikierdin guardia zibilen kontrol batean gerarazi zuten. Barruan zer zegoen begiratu eta plastikoa. Garai hartan plastikoa

kanpotik ekartzen zen. Berak autoan zeramanez, kontrabandokoa zela zioten.

Segituan bueltatu eta guardia zibilekin Lasarteko tailerrera joan ziren. Paper guztiak erakutsi behar, denak ez genituen.

**N. Jostailu hartatik hasi eta gero ekoizpena zabaltzen joan zarete?**

J. M. L. Zeharo aldatu da. Esku tresnen kirtenak egin izan ditugu; bihurkinenak, labanenenak... Ekoizpen hau zeharo galdua dago halere gaur egun, tresna guztiak atzeritik ekartzen dituzte. Pixkanaka etxeko edota makinetak gai elektronikotarako lanean hasi ginen eta horrekin jarraitu izan dugu. Produktu eskaintza ahal dugun gehiena zabaldu dugu.

# Herri galdeketa, otsailaren 27 eta 28an

**H**ondakin kudeaketari buruzko herri galdeketa-  
ren egunak, bat ez bi izan-  
go baitira, finkatuta daude jada; otsailaren 27 eta 28an hondakin bilketa sistemari buruz euren iritzia emateko aukera izango dute herritarrek. Ohiko hauteskundeetan bezala, kanpaina egiteko tartea izango dute alderdiek; otsailaren 11tik 25era. Galdeketa egunetan bestalde, herritar bakoitzak bere bizilekutik ahal bezain gertuen bozka emateko aukera izango du, sei gune egokituko baitira. Modu honetan, Udalak gai honi lotuta duela urtebete hasitako prozesuari amaiera emango dio, hilabete barru herritarrei hitza emanaz.

Iritsi da herritarren iritzia jakiteko unea. Udalak hondakin kudeaketari lotutako herri galdeketa noiz izango den zehaztu du; otsailaren 27 eta 28an. Urtarrilaren 15a baino lehen Usurbilen erroldatuak dauden 18 urtetik gorako herritarrek izango dute bozkatzeko eskubidea. Galdera argia; ia zein bilketa sistema nahi duten herritarrek Usurbilerako. Hiru erantzun posible; atez ate, orain arteko sistema edota orain arteko sistemari bostgarren edukiontzia, organikoarena alegia, erantsita. Erantzun bakoitzeko bozka paper bat egongo da. Hiru bozka paper beraz, herritarren eskura.

## Kanpaina eta guzti

Halabeharrez otsailako azken asteburuan ezin dutenek, astebete lehenago, hilaren 18an goizez, 9:00-14:00 artean, eta 19an arratsaldean, 16:00-20:00 artean izango dute bozkatzeko aukera udaletxean bertan.

Azken hitza herritarrek izango dute, baina alde zuzenetik, ohiko hauteskunde prozesuetan bezala, nor bere mezuekin diseinatutako kanpaina egiteko tartea zabalduko da, hamabost egunez; otsailaren 11n gauerdian abiatuko da, eta otsailaren 25eko gauerdian amaitu.



OTSAILAREN 27 ETA 28AN HERRITARREK HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA GOGO-KOENAREN ALDEKO BOZKA EMATEKO AUKERA IZANGO DUTE. GALDEKETAKO EMAITZA LOTESLEA IZANGO DA, UDALBATZAK IAZKO MAIATZEAN ERABAKI BEZALA.

## Emaitza, loteslea

Emaitzak otsailaren 28ko igande gau horretan bertan kaleratuko dira. Emaitza berez, legalki ez da binkulantea izango, baina iazko maiatzeko osoko bilkuran, udalbatzak galdeketa honetako emaitza loteslea izatea erabaki zuen, galdeketa lotutako beste hainbat irizpide finkatzearekin batera.

## GALDEKETAKO KANPAINA

“Otsailaren 11n gauerdian abiatuko da kanpaina eta otsailaren 25eko gauerdian amaitu”

Modu honetan amaituko da, gai honi lotuta duela urtebete hasitako prozesua. Hilabeteotan hain zuzen, besteak beste, herri galdeketa egiteko konpromisoa hartu zuen udalbatzak, baita herri galdeketa irizpideak finkatu ere.

## Bidean, elkarlana

Galdeketa bera prestatzeko lanean jardun du bestalde, ingurumen alorreko edota gai hauekiko sentsibiltatea

duen herri eragile talde batek. Haiek izan ziren, uda aurretik, herri galdeketa-  
taren edukia prestatu eta testua udalbatzari proposatu ziotenak, udal ordezkariak eztabaidatu eta gerora, osoko bilkuran bozka zezaten.

Ordurako atez ateko bilketa sistema martxan zen. Lehen hiruhilekoa amaitzerako, bilketa sistema berriarekin %80ko muga gainditua zuen birziklatze mailak Usurbilen.

## Kontsultarako egutegia

Bost aste besterik ez dira geratzen herri galdeketa-  
tako. Zeresan ugari emango duen gaiak honako agenda beteko du:

**Otsailak 11-25:** Kanpaina.

**Otsailak 18,19:** Galdeketa egunetan halabeharrez bozkatu ezin dutenek, aurretiazko bozka emateko aukera izango dute udaletxean.

**Otsailak 27, 28:**

Galdeketa. Orduetgia: 10:00-20:00. Bozka emateko lekuak: Sutegi, Haur Eskola, Santuenea kultur elkarte, Aginagako Herri Ikastetxea eta Zubietako Lanbide Eskola.

# Herri eragileek eta Udalak adostutako galdeketa egingo da

**G**aldeketa egunetan, hiru erantzun posibleren artean hautatu ahal izango dute herritarrek. Erantzun bakoitzeko bozka paper bat egongo da. Hiru erantzun, hiru bozka-paper beraz aukeran. Jarraian dator, herri eragile talde baten eta Udalaren artean buruturiko elkarlanari esker, paper bakoitzean ageriko den eta hondakinen gaia testuinguruan kokatzen lagundu duen sarrera testua, galdera nagusia eta herritarren hautazko hiru erantzunak.

“1. Hondakinei buruzko 10/98 Estatuko Legeak, apirilaren 21ekoa, (BOE 1998ko apirilaren 22) 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerriek gaikako bilketa ezarri behar dutela dio, baita zati organikoari dagokionean ere.

2. Gero eta gehiago sortzen ditugun hondakinak ondo kudeatzen ez badira, ingurumenean eta osasunean kalte larriak eragingo dituen tratamendu

oso garestiak beharrezkoak izango dira.

3. Bilketa sistemaren arabera lortutako emaitzak ondorengoak dira:

Atez ate: %81,52 (Usurbil 2009ko apirila)

Orain arteko edukiontzien sistema: %28,42 (Usurbil 2008)

Orain arteko edukiontzien sistema + organikoarentzat 5. edukiontzia: %36,68 (Mataró 2007)

(Iturria: San Markos Mankomunitatea, Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Generalitat de Catalunya).


Sortzen ditugun hondakinetatik ahalik eta gehien birziklatu eta berrehabiltzea da helburua.

Zein bilketa sistema nahi duzu Usurbilerako?

1. Atez ate.

2. Orain arteko edukiontzien sistema (4 edukiontzi).

3. Orain arteko edukiontzien sistema + bosgarren edukiontzia organikoarentzat”.



## Atez ateko bilketak izan duen bilakaera

**H**ondakinen gaiak azken urteetan zeresan ugari eman du:

2009/III/16: atez ateko bilketa martxan jarri zen.

2009/III/23: hamaika tona organiko gehiago garraitu ziren Lapatxeko (Azpeitia) konpostatze plantara, atez ateko bilketaren lehen astean.

2009/III/26: udalbatzak herri galdeketa egiteko konpromisoa berretsi zuen gehiengoz.

2009/IV: hilabeteren buruan, birziklatze-maila, %76,08koa da.

2009/V/26: herri galdeketari buruzko irizpideak finkatu zituen udalbatzak.

2009/VI: herri eragile talde baten bilkurak, herri galdeketaren edukia prestatzeko.

2009/VI/30: osoko bilkurak herri galdeketa edukia onartu zuen, gehiengo osoz. Ordurako, atez ateko bilketak %80ko muga gainditua zuen.

2009/IX/16: Oiartzun eta Hernaniko udalek atez ateko bilketa martxan jartzeko asmoa iragarri zuten.

2009/XI: Udalak herri galdeketa egiteko baimena jaso zuen.

2009/2010: atez ateko bilketa ezagutzeko bisitaldiak Usurbila.



ATEZ ATEKOA HONDAKINAK KUDEATZEKO ALTERNATIBA ERREALEAN BILAKATU DA.

# UDARREGI IKASTOLA



*Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizuete:*

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.

*41 urteko esperientzia Usurbilen.*

**Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)  
Otsailaren lehenengo HAMABOSTALDIAN:**

**HAUR HEZKUNTZA:** 3 - 6

**LEHEN HEZKUNTZA:** 6 - 12

**DBH:** 12 - 16



**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea, USURBIL

[www.udarregi.com](http://www.udarregi.com)

[www.udarregi.mundua.com](http://www.udarregi.mundua.com)

## Gure Pakea elkartearen batzar nagusia, urtarrilaren 29an

**U**rtero moduan, Gure Pakea elkarteak ohiko batzar nagusia burutuko du urtarrilaren 29an. Bi hitzordu finkatu dituzte; lehen deialdia 16:00etan, bigarrena 16:30etarako. Lekua, Artzabalgo egoitzan.

Elkartetik ohartarazi dutenez bestalde, bazkietza kuota bankuen bidez kobratuko da aurten. Horregatik ahal bezain laster, kontu korronteko hogezi zenbakien berri ematea eskatzen zaie bazkideei; asteleheneratik ostiralera Artzabalgo bulegora 10:00-12:00 artean joanda, edota 943 368 770 telefono zenbakira deituta.



BAZKIDETZA ORDAINTEKO GARAIA DUTE  
GURE PAKEAKO KIDEEK.

## Bihurri Txiki ludotekako bazkide izateko aukera, irekita

**Z**abalik jarraitzen du Bihurri Txiki ludotekako bazkietza egiteko epeak. Ludotekako kideek aste hasieran jarri zuten lehen hitzordua. Bazkietza egiteko bigarren deialdia, datorren astelehenerako, urtarrilaren 25erako egina dute, 17:00-18:00 artean ludotekan bertan. Bestalde, martxoaren 31 arte zabalik egongo da, jada bazkide direnek kuota ordaintzeko epea. Hamar eurokoa izango da ordaindu beharreko diru-kopurua. Kontu korronteko zenbakia ludotekan bertan eskura liteke, Artzabalgo gunea



ORDAINDU BEHARREKO DIRU KOPURUA  
10 EUROKOA IZANGO DA.

ireki aurretik zahar egoitza kokatzen zen lekuan hain zuzen.

## Sahararen aldeko produktu bilketa

**S**ahararen Herriaren Lagunak Staldeak, urteroko oinarritzko gaien bilketari ekin dio. Ostiral honetara arte, urtarrilaren 22ra arte produktu hauek bilduko dira: hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, pasta, arroza, lekaleak eta konpresak. Iaz bezala, hiru bilketa gune egokitu dira; Aliprox eta Dia saltokiak, Udarregi ikastolarekin batera. Elkartasun ekimenean parte hartzeko azken eguna, urtarrilaren 23a izango da. Egun osoan, Urbil merkatal gunean bilduko dira arestian aipatutako produktuak. Antolatzaileek ohartarazten dutenez, "sahararren egoera geroz eta larriagoa da. Urtez urte anemia, desnutrizioa... gero eta okerragoa da. Horregatik denon laguntza behar dute, beraien egoera lotsagarria ahal den moduan hobetzeko".




SAHARAR KANPAMENDUEN EGOERA EZ DA DNA. ELIKAGAIEN PREMIA DIRA.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

**GASA BEROKUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**KALITATEKO EUSKAL OKELA**



**ALKORTA AUTOZERBITZUA**

**Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak**

Behoko kalea, 4  
Telf: 943 36 57 42

## Santa Ageda egunerako koplak

**G**abonekin batera, turroiak, mazapanak... atzean utzi eta laster Santa Ageda eguna datorkigu, otsailaren 5ean, hain zuzen ere. Santa Ageda bezperan ohitura da herrietan koplak abestu eta diru eske ateratzea. Urtero lez, Udarregi Ikastolakoak makilak hartu eta kalera irtengo gara erritmoa markatuz. Koplak abestuz aterako dugun dirua DBH 4. mailako ikasleontzat izango da, urte amaierako ikasbidaiarako, Bartzelonara baikoaz. Otsailaren 4an, arratsaldean, herriko kaleetan zehar ariko gara kantari. Egun horretarako DBH4ko ikasleok hainbat koplak asmatu ditugu. Hona hemen horietako batzuk:

Hemen gatoz aurten ere  
Kantari aspertu arte  
Santa Ageda oroimenean  
Nahi degu zakua bete

Begira dugun Andrea  
Emateu lililorea  
Espero dugu koplak entzunda  
Zuk patrikak hustutzea

Bidaia Bartzelonara  
Joateko gai al gara  
Esku zabal baldin bazaudete  
Ondo iritsiko gara

Makil soinua isilduz  
Gure bi oinak astinduz  
Hemendik goaz oso irribartsu  
Zuen laguntza eskertuz



ZUBIETAN, HELDUAK ERE KANTARI ATERAKO DIRA. ENTSEATZEKO LEHEN DEIALDIA EGIN DUTE OSTIRAL HONETARAKO. 19:00ETAN, KAXKAPEN.

### Santa Ageda Zubietan

**O**tsailaren 4an, Santa Ageda bezpera dela eta, kantari ibiliko dira Zubietan. Parte hartu nahi duenarentzat, entseguak Kaxkapen izango dira urtarrilaren 22an eta 29an, arratsaldeko zazpitan. Heldu eta gazteen-tzako gonbita da hau, ez umeentzat.

## Dantza ikastaroa eta parkeari buruzko bilerak Kalezarren

**F**andango eta arin-arina nola dantzatzen den ikasi edota bere maila hobetu nahi duenak, Kalezarreko Belmonte auzo elkarteak antolatzen duen ikastaroan izena eman dezake. Klaseen egun eta ordutegia finkatzeko bilera deitu du bilguneak, datorren urtarrilaren 27rako. 19:00etan, Harane futbol zelai ondoko lokalean. Ikastaroa otsailean hasiko da.

**Parkeari buruzko bilera urtarrilaren 29an egingo da**  
Kalezarko parkeari buruz azken aldiaren egindako inkestan hainbat proposamen egin dituzte herritarrek.  
Aipatu iradokizunei buruz hitz egiteko bilera antolatu du Belmonte auzo elkarteak. Urtarrilaren 29an, ostirala, 17:30ean Harane futbol zelai ondoko lokalean.



KALEZARREKO PARKEA (ARTXIBOKO IRUDIA).

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)  
USURBILGO ATARIA



**Usurbil**  
**Autoak, S.C.L.**  
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,  
Aitezarra kalea, 1.  
20170 USURBIL  
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

# Kirolari bezala heztea, Usurbil FTko infantilen erronka nagusia

**H**elburua, ikastolan burutu-tako balore lanketari jarraitpena ematea da; kirolari bezala heztea. Horretan ari da astero Haranen Usurbil FT-ko infantil maila-koen taldea, David Asensio, Arkaitz Martiarena eta Eskola Kiroleko futbol-eko koordinatzaile Manu Urbietaren esanetara.

**NOAUA!** Talde berria. Zer moduzko hasiera izan duzue?

**Arkaitz Martiarena.** Lehen egunetan nabari zen. Baina denborarekin hobetzen ari dira eta horrekin gustura gaude.

**N. Gaztetroek zein da hobekien baloratzen duten alderdia?**

**Manu Urbiet.** Partidetara joateko eta irabazteko gogo handia dute. Halere, entrenamendu saioei garrantzi handiagoa eman nahi diegu; ariketa eta jolasen bidez futbola ulertarazi, ondo pasa, eta horrekin etorriko dira garaipenak. Baina garaipenak ez du entrenamendu saioen itzala izan behar. Hori lortzen ari gara.

**N. Azken finean, harrobia da. Ondo zaindu beharrak daude?**

**M.U.** Futbolean askotan eta gaur egun, emaitzei bakarrik begiratzen zaie. Ispilua dira Lehen Maila, lehiakortasuna, jokalarizarrak... Hori uste dut, burutik kendu behar zaiela. Ez dugu ahaztu behar futbola jolas bat dela, kirol jarduer bat, ondo pasatzeko gune bat. Poliki-poliki hori guztia transmititzen ari gara, bai haurrei, baita gurasoei ere.

**N. Heziketaren alderdia zer modu-**



INFANTIL MAILAKO KIROLARIAK GOGOTSU JOAN OHI DIRA, HARANE FUTBOL ZELAIKO ENTRENAMENDU SAIOETARA. IRUDI HAU HORREN ERAKUSGARRI.

**tan integratzen duzue entrenamendu saioetan?**

**M.U.** Hasteko, denek aukera berdina dituztela: alde ludikoa landu behar dugu, jolasak landu behar ditugu, aldageltan portaerak landu, elikadura zaindu... Kirolaren inguruan garrantzitsuak diren alderdi asko landu behar ditugu.

**N. Erraza al da futbolera gatzetxoak erakartzea?**

**A.M.** Egia esan, hona datorrenari futbola gustuko zaio. Telebistaz ikusten du, bere idoloa du, bere gustuko jokalaria du. Azkenean badator. Baina aukera handia dago Usurbilen eta pixka bat kosta egiten da jendea biltzea. Halere, zortea izan dugu jendea animatu delako.

**N. Nola bukatu nahi duzue ekaina?**

**M.U.** Entrenamendu saioetara gogotsu etor daitezela. Ekainean bukatzean, gure aldetik, dauden jokalariek edo gehiagok hurrengo urtean jarraitzeko gogoia izatea litzateke helburua.

## Agirretxe taldea osatzen hasi dira

**R**ealeko jokalariek laster jarraitzaile talde bat izango du herrian. Dagoeneko bertako bazkide egiteko kanpaina jarri dute abian. Bazkide egiten direnek abantailak izango dituzte. Bestek beste, bidaietan. 18 urtetik gorakoek urtean 50 euro ordaindu beharko dituzte eta 18 urte azpikoek 25. Informazio gehiago: [www.agirretxetaldea.com](http://www.agirretxetaldea.com)



BAZKIDE EGITEKO WEBGUNE HONETAN SARTU BEHAR ZARA.

**LAUKOTE**  
OKINDEGIA  
KAFETEGIA  
Puntapax kalea. 16 behea  
(Artzabal) 943 36 09 80

ZUBIAURRENEA 4. USURBIL  
ileapaindegia  
943361951  
mistoa

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
Obaba kalea 29 • ASTEASU  
943 69 68 52 • 620 800 186





## Agenda !

### Urtarrilak 30 larunbata

- Kantu-jira kalez kale, 19:00etan frontoian.

- "Hor al zaude?" antzerki saioa, 20:00etan Sutegin. Sarrerak aldeztatik 8 euro kiroldegian. Egunean bertan, 10 euro.

### Eguneko

### goardiako farmaziak

Urtarrilak 21 osteguna  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urtarrilak 22, ostirala  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Urtarrilak 23, larunbata  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte  
Iturralde, Borda Berri, 1

Urtarrilak 24, igandea  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urtarrilak 25, astelehena  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urtarrilak 26, asteartea  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urtarrilak 27, asteazkena  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urtarrilak 28, osteguna  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 29, ostirala  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urtarrilak 30, larunbata  
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 31, igandea  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
Chucla farmazia (22:00-09:00),  
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)  
\*Usurbilen, soilik eguerdira arte

## Asier Hormaza eta Ainhoa Aierbe, datorren asteko antzerkiko aktoreak

**T**aula gainean bi aktore ezagun. Honez gero, bide luzea osatu duten bi antzezle: Asier Hormaza eta Ainhoa Aierbe. Eta antzezlan, aberatsa errejistroetan. Komedia, drama eta magia nahasten baititu. Urtarrilaren 30ean Sutegin eskainiko dute obra hau. Sarrerak, aldeztatik, kiroldegian jarri dira salgai.



SARRERAK ALDEZ AURRETIK KIROLDEGIAN  
JARRI DITUZTE SALGAI.

Jatorrizko obra Javier Baute antzerki-egile argentinarrena da, euskara itzulua. Joseba Apaolazak zuzendu du euskarazko egokitzapena. Argumentuari dagokionez, etxe berri batera bizitzera joaten den bikote baten istorioa kontatzen du obrak.

Bertan, hirugarren elementu bat aurkituko dute, euren bizitza hankaz gora jarriko duena. "Ezin dut gehiago kontatu; osagai magiko hori galdu ez dezan obrak, hain berezi egiten duena", gehitu zuen aktoreak.

### Josu Aizpurua, txapeldun berria

**P**asa den asteburuan, 6. kuadroko finala jokatu zen Joko Garbian. Txapelketa herri mailan jokatzen da, buruz buru. Hamar pilotarik hartu zuten parte, bi multzotan sailkatu. Azkenean, Josu Aizpurua eta Jon Huizi iritsi ziren finalera. Jon iazko txapelduna zen, baina aurten Josu Aizpuruak 30 eta 23 mendean hartu du Jon. Irudian, finalistak.



### Pilota partidak

URTARRILAK 21 OSTEGUNA  
AGINAGAN, 21:00etan  
Paleta goma gizonetakoak 2.maila  
USURBIL-ALDE ZAHARRA 1  
(Josu Arruti - Jon Olaizola)

URTARRILAK 23 LARUNBATA  
USURBIL, 11:00etan  
Jubenilak 2.maila  
USURBIL -LIZARDI-IGELDO  
(Imanol Zinkunegi - Julen Gesalaga)

Jubenilak 1.maila  
USURBIL - ARETXABAETA  
(Gorka Mendizabal- Markel Galarraga)

Nagusiak 1.maila  
USURBIL 1 - BEHAR ZANA  
(X. Errasti - A. Katalina) (Villabona)

### Gabonetako zozketa

Urtero, Gabonetarako Pilota Elkarte-koek atera ohi duten egutegi-zozketaren zenbakia hauxe izan da: 8.588. Saridunak bi afari irabazi ditu Aginaga eta Saizar sagardotegietan, bina pertsonentzat.

Andoni Errazkin

# Xukin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

## Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

## ETXEBIZITZA

- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometro-tara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukalde, komuna eta porxtxa. 675702428 (gautan).
- Atxegaldeko Erdiko Kalean 81 metro karratuko etxea salgai. Erreformatua, prezioa 47 milioi pezeta. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, kanbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Santuena 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukalde handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprila Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Beheko Kale Atxegalden lokal bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 645736726 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean.

- 646514494
- Mendiko terenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotrako altuera. 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

## LANPOSTUAK

## Lan-eksaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

## Lan-ekaintzak

- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Esperientzia duen neska bat behar da goizez etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 687055166.
- Emakume bat (paperak ditu) eskaintzen da pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. 618128461 / 943575788.
- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntza lanak, garbiketak eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketara lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendingian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago.

666 38 26 97.

- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. Interesatuak deitu 609099824 telefonora.
- Urtarrilak 6an harribitxiak zituen urrezko eraztun bat galdu nuen Eliza eta Kaffa kafeteri artean. Norbaitek aurkitu badu eskertu nuke telefono honetara deitzea 943365631.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aukiak, mahaia, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Potrokak salgai, kalifikatuak eta subentzia jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urte-beteko behorra. 626 220925

## Zorionak Maider!

Urtarrilaren 20an 4 urte egin-gotuz. Olatzek eta gurasoek besarkada bat eta zorionak eman nahi dizkizugu!

Muxuak!



## Zorionak Inaki!

Urtarrilak 23an 7 urte egingo dituzu. Hasi merendola prestatzen! Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez!



## O NO! 40 urte, Migel!

Zorionak, belarririk tiratzean (Ai!), zorionak ta musu bat zuzetzako etxekoen partez!



## Zorionak Unax eta Malen!

Urtarrilaren 17an egin dituzue 6 urte eta etxeko guztiak muxu handi bana eta besarkada bat bidaltzen dizuegu. Zorionak!



## Zorionak Jon!

4 urte beteko dituzu 21ean. Ondo pasa egun zoriontsu hori! Aginagako eskolako lagunak.



## HILDAKOAK

Ignacia Lizaso Peñagarikano  
93 urterekin hil zen,  
urtarrilaren 5ean



**Oharra:** Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan:  
Telefonoz: 943 360 321.  
E-postaz: erredakzioa@noaua.com

# TXOTX!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hemani**  
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228  
www.sidrassaizar.com



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA  
**ARRATZAIN**  
TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baserria  
info@agroturismoarratzain.com  
Telf: 943 36 66 63  
20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL  
www.iruinsagardotegia.com | www.astiazaransagardoak.com




**AGINAGA**  
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7  
Aginaga auzoa, USURBIL  
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10  
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com



## “OLARRONDOKO GAUAK”

- Ostiral eta larunbatetan apirila azkenerarte, **GAU GIROA**, DJ Izania gaueko 12tik aurrera.
- Helduentzako urtebetetzeak: (tarta aukerarekin)
  - Despedidak (guk antolatzeko aukera)

## OHARRA:

**OTSAILAK 13ko GAUAN,**  
**LARUNBATA, taberna**  
**ITXITA** egongo da  
ezkontzagaritik.  
Barkatu eragozpenak.

**Olarrondo Jatetxea**  
5 zenbakia. USURBIL  
erreserbak: ☎ 943 360 376  
[www.olarrondo.com](http://www.olarrondo.com)